Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

11

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 29koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, «Granja Eguiluce» izeneko nekazaritzako eraldakuntza-baltzuaren deuseztapena Euskal Herriko Nekazaritzako Eraldakuntza-Baltzuen Erregistroan inskribatu dela argitara ematen duena.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatu zuen Dekretuaren bidez (abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua) Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaritzari esleitu zitzaizkion eginkizunak betetzeko, eta Euskal Herriko Nekazaritzako Eraldakuntza-Baltzuen Erregistroa sortzen duen Dekretuaren arabera (martxoaren 14ko 53/1983 Dekretua).

Nekazaritzako Eraldakuntza-Baltzuak (NEB) arautzen dituen Errege Dekretuan (abuztuaren 3ko 1776/1981 Errege Dekretua), bereziki 14. artikuluan, eta aplikatzekoak diren gainontzeko arauetan finkatutakoaren arabera, hau,

EBATZI DUT:

1613 zk.ko «Granja Eguiluce» NEBren deuseztapena, 2010eko azaroaren 26an, Euskal Herriko Nekazaritzako Eraldakuntza-Baltzuen Erregistroan inskribatu da, eta hala argitaratzen da ebazpen honen bitartez. NEB honek Errenterian (Gipuzkoa), du egoitza. Argitalpen hau, bestetik, Euskal Herriko Nekazaritzako Eraldakuntza-Baltzuen Erregistroko Inskripzio Liburuaren 1.027. orriko A. folioko hamaikagarren idazpenaren ondorioa da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 29a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

11

RESOLUCIÓN de 29 de noviembre de 2010, de la Directora de Agricultura y Ganadería, sobre inscripción en el Registro de Sociedades Agrarias de Transformación del País Vasco de la cancelación de la SAT. «Granja Eguiluce».

En el ejercicio de las funciones que le están atribuidas a la Dirección de Agricultura y Ganadería por el Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, y en relación con el Decreto 53/1983, de 14 de marzo, por el que se crea el Registro de Sociedades Agrarias de Transformación del País Vasco.

De acuerdo con lo fijado en el Real Decreto 1776/1981, de 3 de agosto, por el que se regulan las Sociedades Agrarias de Transformación, en particular en su artículo 14, así como en el resto de normativa de aplicación.

RESUELVO:

Publicar la inscripción en el Registro de Sociedades Agrarias de Transformación del País Vasco, de la cancelación, con fecha 26 de noviembre de 2010, de la SAT. n.º 1613 denominada «Granja Eguiluce», con domicilio social en Errenteria (Gipuzkoa), lo que resulta del Libro de Inscripciones del Registro de SAT del País Vasco al Folio A de la Hoja 1027, Asiento undécimo.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de noviembre de 2010.

La Directora de Agricultura y Ganadería,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.